EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZA
Komunikaziorako Zuzendaritza
PRESIDENCIA
Dirección de Comunicación

# GOBERNU BILERA
Prentsa-Txostena
Gai nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO
Dossier de Prensa
Asuntos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzak 2**

**Vitoria-Gasteiz, 2 de mayo de 2017**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@euskadi.eus

**Lehendakaritza**

## DIRU-LAGUNTZA EMANGO ZAIO ELGE-RI LANKIDETZA DEZENTRALIZATUA AZTERTZEKO

Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu du gaur 20.000 euroko diru-laguntza bat ematea Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Erakundeari (ELGE), azterlan bat egiteko EBko herrialdeetako lankidetza deszentralizatuaren oraintsuko joerei buruz.

Azterlanaren helburua da azkeneko hamarkadetan Europako eskualdeetako eta tokiko gobernuek bultzatutako lankidetza deszentralizatua aztertzea, esperientzi horretatik ikasteko eta hobekuntza gomendioak egin ahal izateko.

Lana ELGEk egingo du, Gobernantza Publiko eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritzaren bitartez –nazioz azpiko gobernuekiko harremanen arduraduna da eta zuzendaritza hori– eta Garapenerako Laguntza Batzordearekin lankidetzarekin,  izan ere, batzorde hori da garapenerako lankidetzaren herrialde hornitzaileen nazioarteko foro nagusia.

Asmo horrekin, honako atal hauek izango ditu azterlanak:

I.- Finantza fluxuen, eragileen, erabilitako mekanismoen eta lehentasunezko herrialdeen eta sektoreen azterketa bat.

II.-  Kasuko bost azterketa, ikuspegiei, helburuei, eragileen arteko lankidetzari eta abarrei buruz ikasteko asmoz, eta

III.- Eztabaidarako hainbat mintegi, ikerketaren aurrerapenak egiaztatzeko.

Amaitutakoan, bi emaitza lortuko dira: argitalpen bat eta on-lineko datu base estatistiko bat.

**Gobernantza Publikoa eta Autogobernua**

# "JESÚS MARÍA LEIZAOLA" SARIAREN EDIZIO BERRIKO EUSKAL AUTONOMIARI BURUZKO IKERKETA LANAK AURKEZTEKO EPEA ZABALDU DA

- **Lanek argitaratu gabeak izan behar dute, euskaraz edo gaztelaniaz, eta pertsona bakanek edo kasurako osatutako taldeek egin ditzakete**

- **Eskaera zein proiektuak berak izapide elektroniko bidez aurkeztu beharko dira, www.ivap.euskadi.eus webgunearen bitartez**

- **Sari honen helburua euskal sistema autonomikoaren berezitasunei buruzko azterketak bultzatzea da**

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak gaur argitaratu du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) ikerketa-lanetarako 2017ko "Jesús María Leizaola" sariaren deialdia. Lan horiek azterketaren ikuspegi diferentetatik landutako monografiak izango dira. Monografia horien helburuek Euskal Autonomiarekin loturik egon behar dute edo hura aztertu eta bertan sakondu behar dute.

14.000 euroko saria da, eta ikerketa-lan zientifiko onenari emango zaio. Epaimahaiak, baina, saria aurkeztutako bi proiektu edo gehiagori ex aequo emateko aukera izango du. Euskaraz zein gaztelaniaz aurkez daitezke lanak, argitaratu gabeak izan behar dute, euskal autonomia bereziaren alderdiren batekin lotuta egon behar dute, eta, gutxienez, 100 orrialde izan behar dituzte, espazio bikoitzarekin mekanografiatuta.

2017ko "Jesús María Leizaola" sarira pertsona bakanak zein kasurako bildutako lan-taldeak aurkeztu ahal izango dira. Lanak www.ivap.euskadi.eus web orriaren bitartez aurkeztu beharko dira.

## EUSKAL AUTONOMIA SISTEMA

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) ikerketa-sari hau 1990ean sortu zuen, eta Jesus Maria Leizaola izena eman zion, arlo horretako erakusle prestigiotsu eta adierazgarrienetako bat izandakoa gogoratuz, eta euskal autonomia-sistemaren berezitasun juridiko eta ekonomikoei buruzko azterlanak sustatzeko eta hedatzeko; hori baita, hain zuzen ere, erakundearen beraren funtzioetako bat.

Harrezkero, erakunde honek sari honen deialdia egiten du aldian-aldian, askatasun osoz euskal autonomiarekin lotutako gaiei buruzko ikerketak egiten dituzten edo horiek aztertzen dituzten eta horietan sakontzen duten ikertzaileen ahaleginak sustatzeko eta ezagutarazteko.

## Hezkuntza

**500.000 EURO LANBIDE HEZIKETAN ERASMUS+ MUGIKORTASUN PROGRAMAK LAGUNTZEKO**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du Lanbide Heziketaren eremuan ikaskuntza-arrazoiengatik pertsonak mugitzeko jarduerak antolatu eta garatzeko diru-laguntzak deitzen dituen agindua, Erasmus+ programaren barruan.

500.000 euroko zenbatekoa duen agindu honen helburua da, Erasmus+ programaren 2017ko deialdian ikaskuntza-arrazoiengatik pertsonak mugitzeko onartutako mugikortasun-proiektuak kofinantzatzeko diru-laguntzak ematea, betiere mugikortasun-proiektu horiek 2017 eta 2018 urteetan gauzatzen badira. Mugikortasun horien azken hartzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan matrikulatutako edo titulatutako ikasleak (bai Erdi Mailako Heziketa Zikloetakoak, bai Goi Mailako Zikloetakoak) edo Euskal Lanbide Heziketako irakasleak izan beharko dute.

Europako Batasunak mugikortasun jarduera horiek finantzatzeko egiten duen ekarpen ekonomiko ez da nahikoa izaten jarduera horiek gauzatu ahal izateko, beraz ezinbesteko gertatzen da deialdi hauek egitea Europako finantziazioak hartzen ez duen portzentajea osatzeko. Deialdi honen bidez ematen diren diru-laguntzak egonaldi-gastuetarako bideratzen dira batez ere.

### 883 ikasle eta 165 irakasle

2016-2017 ikasturte honetan Euskadiko Lanbide Heziketako 883 ikaslek jaso dituzte orotara, bai ikastetxe publikoetakoek bai itunpekoek, Erasmus+ mugikortasun proiektuetan parte hartzeko laguntzak, iazko deialdien bidez. Horietatik 284 Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleak dira, eta 599 Goi Mailako Zikloetakoak. Laguntzak jaso dituzten irakasleak berriz, 165 dira. Joan den martxoan abiatu dira guztiak Europako herrialdeetara eta prestakuntza jasotzen ari dira dagoeneko Italia, Polonia, Txekiar Errepublika, Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Norvegia, Suedia, Finlandia, Holanda, Estonia, Eslovenia nahiz beste hainbat herrialdetako enpresa edo erakundetan.

Deialdi honek laguntzen dituen ikasleen zein irakasleen mugikortasun-ekintzek honako helburu hauek sustatzen dituzte:

- Parte-hartzaileei laguntzea ezagutza, trebetasunak eta gaitasunak bereganatzen, haien garapen pertsonala bultzatze aldera.
- Ikasleei beharrezko dituzten trebetasunak ematea, hezkuntza eta prestakuntza-arlotik lan-merkatura igaro daitezen.
- Hezkuntzaren eta Lanbide Heziketaren esparruetan ohitura berritzaileak garatzen laguntzea eta horien transferentzia lortzea bertan zein herrialde parte-hartzaileen artean.

## Hezkuntza

**305.000 EURO IKASGELETAN BALIABIDE DIGITALAK INTEGRATZEKO "SARE_HEZKUNTZA GELAN" PROIEKTURAKO**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du Euskadin kokatutako unibertsitatez kanpoko itunpeko ikastetxeak, eta ikastetxe horiekin estatu edo arauzko harremanak dituzten elkarte eta federazioak 2017-2018ko ikasturtean Sare_Hezkuntza Gelan berriztapen-proiektuan parte hartzera deitzen dituen agindua. Aipaturiko proiektu honek ikasgeletan, irakatsi eta ikasteko prozesuan, baliabide digitalak txertatzea du helburu.

305.000 euroko zenbateko globala duen deialdi honen bidez, ikastetxeetan irakatsi eta ikasteko prozesuan material eta baliabide digitalak egiteko prozesua sustatu nahi da, bai eta material eta baliabide horiek gelan erabiltzeko eta gauzatzeko behar den prestakuntza teknologikoa eta pedagogikoa erraztea ere. 2017-2018 ikasturterako deialdi honetan, gehienez itunpeko 50 ikastetxe hautatuko dira

Ondoren aipatzen diren ildo hauetako bat edo batzuk betetzen dituzten proiektuek jasoko dituzte deialdi honetan aurreikusten diren diru-laguntzak, eskaera egiten duen ikastetxean bertan edo federazio edo elkarteen bidez parte hartzen duten beste ikastetxe batzuetan ezartzeko:

1) Teknologia berriak eta material eta baliabide digitalak erabiltzea irakatsi eta ikasteko prozesuan.

2) Irakasleen prestakuntza teknologikoa eta pedagogikoa, material eta baliabide digitalak egiteko, eta irakatsi eta ikasteko prozesuan erabiltzeko.

3) Ikasgelan erabiltzeko material digitalak sortzea.

2016-2017 ikasturte honetan Euskadiko 190 ikastetxe ari dira parte hartzen orotara Sare_Hezkuntza Gelan programan, 105 ikastetxe publiko eta 85 itunpeko.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## EUSKO JAURLARITZAK 500.000 EURO ONARTU DITU MUSIKA JARDUERA PROFESIONALAK DIRUZ LAGUNTZEKO

- **Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko deialdi honek iaz baino 25.000 euro gehiago izango ditu**

Gobernu Batzordeak 2017an musika jarduera profesionaletarako diru-laguntzak emateko modua arautzen duen agindua onartu du bere gaurko saioan. Guztira, Eusko Jaurlaritzak 500.000 euroko kontu-saila izango du musika ekitaldiak sustatzeko eta, oro har, musika lanak garatu edo zabaltzeko. Deialdiak iaz baino 25.000 euro gehiago izango ditu.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailetik sustatutako deialdi honek lau jarduera mota ezberdin garatuko ditu: partiturak argitaratzea, musika proiektu unitarioak, musika enpresa ekimenak eta musika programazioa. Lehenengo esparruak 30.000 euro izango ditu eta Euskadiko musikarien obren partiturak editatzea du helburua. Bigarrenaren bidez, 135.000 euro banatuko dira eta musika proiektu propioak kudeatzen dituzten eragileei dago zuzenduta.

Hirugarren diru-laguntza motari dagokienez, 195.000 euroren bitartez diruz lagunduko dira eragileek kudeatzen dituzten musika ekimen enpresarialak. Azkenik, 140.000 euro izango dira euskal musika taldeen programazioa musika areto pribatuetan sustatzeko.

Deialdiaren aurtengo igoerari esker 15.000 euro gehiago izango dira bigarren modalitatean eta 10.000 gehiago hirugarrenean.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## EUSKO JAURLARITZAK 450.000 EURO BIDERATUKO DITU DANTZARI LOTURIKO JARDUERAK SUSTATZERA

- **Formatu txikiko dantza lanen ekoizpena babesteko modalitate berri bat sortu da**

Eusko Jaurlaritzak 450.000 euroko kontu-saila onartu du dantzari loturiko jarduerak sustatzeko xedearekin. Deialdiak bost laguntza-modalitate aurreikusten ditu eta, berritasunen artean, formatu txikiko dantza lanen ekoizpena babesteko modalitatea dago.

Dantza arloko jarduera berezien gauzatzea xede duten diru-laguntzak deitu eta arautzen dituen agindua onartu du Gobernu Kontseiluak, gaurko saioan, 2017 ekitaldirako. Bere bost modalitateak ondokoak dira:

- Sorkuntza koreografikoa (28.800 euro).
- Dantza lanen ekoizpena I (60.000 euro).
- Dantza lanen ekoizpena II (200.000 euro).
- Dantza konpainien kontsolidazioa (110.000 euro).
- Etengabeko prestakuntza eta dantza arloko profesionalak babestea (51.200 euro).

Deialdiaren oinarrien arabera, deialdi honen xedea da dantza sustatzea beren kalitatea bermatua duten proiektuak diruz lagunduz, bai sorkuntzaren eta ekoizpenaren arloan bai prestakuntzari, sentsibilizazioari eta arlo profesionalaren babesari dagokienean ere. Diru-laguntzak eskatzeko epea hilabete batekoa izango da, deialdia argitaratu den egunetik hasita.

**Presidencia**

## SUBVENCIÓN A LA OCDE PARA UN ESTUDIO SOBRE COOPERACIÓN DESCENTRALIZADA

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy conceder una subvención de 20.000 euros a la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económicos (OCDE), para la realización de un estudio sobre tendencias recientes de la cooperación descentralizada en los países de la Unión Europea.

El objeto del estudio es analizar la cooperación descentralizada impulsada por gobiernos regionales y locales europeos durante las últimas décadas, con el fin de obtener aprendizajes de la experiencia y hacer recomendaciones de mejora.

El trabajo será realizado por la OCDE, a través de la Dirección de Gobernanza Pública y Desarrollo Territorial -encargada de la relación con los gobiernos subnacionales-, en colaboración con el Comité de Ayuda al Desarrollo - principal foro internacional de países proveedores de cooperación para el desarrollo.

Con este propósito, el estudio abarcará los siguientes aspectos:

I.- Un análisis de los flujos financieros, los actores, los mecanismos utilizados y los países y sectores priorizados,

II.- Cinco estudios de caso de los que extraer aprendizajes sobre enfoques, objetivos, colaboración entre actores, etc. y

III.- Una serie de seminarios de discusión para contrastar los avances de la investigación.

Al final del proceso se obtendrán dos productos: una publicación y una base de datos estadística online.

**Gobernanza Pública y Autogobierno**

# ABIERTO EL PLAZO DE PRESENTACIÓN DE TRABAJOS DE INVESTIGACIÓN SOBRE AUTONOMÍA VASCA EN UNA NUEVA EDICIÓN DEL PREMIO "JESÚS MARÍA LEIZAOLA"

- **Los trabajos deberán ser inéditos, en euskera o castellano, elaborados tanto por personas individuales, como por equipos de trabajo formados al efecto**

- **Tanto la solicitud como los propios proyectos deberán presentarse mediante tramitación electrónica, a través de la web www.ivap.euskadi.eus.**

- **El objetivo de este premio es promover y difundir estudios sobre las peculiaridades del sistema autonómico vasco**

El Boletín Oficial del País Vasco ha publicado hoy la resolución por la que el Instituto Vasco de Administración Pública, IVAP, convoca el premio "Jesús María Leizaola" 2017, para trabajos de investigación, consistentes en monografías, elaborados desde distintas perspectivas de estudio, y cuyo objeto tenga relación con la autonomía vasca o pueda redundar en el estudio y profundización de ésta.

El premio está dotado con 14.000 euros y se concederá al mejor trabajo de investigación de carácter científico, si bien, el jurado podría considerar otorgar el premio, ex aequo, a dos o más de los proyectos presentados. Las obras que se presenten, tanto en euskera como en castellano, deberán ser inéditas, relacionadas con alguno de los aspectos de la singular autonomía vasca, y con una extensión mínima de 100 páginas mecanografiadas a doble espacio.

Podrán optar al premio "Jesús María Leizaola" 2017, tanto personas individuales como equipos de trabajo formados al efecto. Los trabajos deberán presentarse a través de la página web, www.ivap.euskadi.eus.

## SISTEMA AUTONÓMICO VASCO

El Instituto Vasco de Administración Pública, IVAP, creó en 1990 este premio con el nombre de Jesús María Leizaola, en recuerdo de quién fuera uno de los exponentes más prestigiosos y representativos de la autonomía vasca, y con el fin de promover y difundir estudios sobre las peculiaridades jurídicas y económicas del sistema autonómico vasco, precisamente, una de las funciones del propio instituto.

Desde entonces, este organismo, viene convocando el premio para renovar, periódicamente, el propósito de estimular y dar a conocer los esfuerzos de investigadores que, con libertad absoluta, dirijan sus estudios hacia temas relacionados con la autonomía vasca o que puedan redundar en su estudio y profundización.

## Educación

**500.000 PARA PROYECTOS DE MOVILIDAD EN EL ÁMBITO DE LA FP, DENTRO DEL PROGRAMA ERASMUS+**

El Consejo de Gobierno, a propuesta de la consejera de Educación, ha aprobado, en su reunión de hoy, la Orden por la que se convocan ayudas económicas para la organización y desarrollo de las acciones de movilidad para las personas por motivos de aprendizaje en el ámbito de la Formación Profesional, dentro del marco del Programa Erasmus+.

El objeto de esta Orden es el convocar ayudas económicas, por un importe global de 500.000 euros, para la cofinanciación de proyectos de movilidad aprobados dentro del Programa de Erasmus+, convocatoria 2017, destinadas a movilidad por motivos de aprendizaje, siempre y cuando se desarrollen durante los años 2017 y 2018. El personal destinatario final de estas movilidades deberá ser el alumnado matriculado o titulado en la Formación Profesional del País Vasco (bien de Grado Medio, bien de Grado Superior) o docentes de la Formación Profesional Vasca.

La contribución financiera de la UE para las acciones de movilidad no alcanza el total del presupuesto para llevarlas a cabo, por lo que estas convocatorias se hacen imprescindibles para cubrir el porcentaje de presupuesto que no cubre la financiación comunitaria. Las subvenciones concedidas mediante esta convocatoria se destinan fundamentalmente a gastos de estancia.

### 883 alumnos y 165 docentes

Durante este curso 2016-2017 un total de 883 alumnos y alumnas de FP de Euskadi, tanto de centros públicos como de concertados, se están beneficiado de estas ayudas para participar en proyectos de movilidad Erasmus+, mediante las convocatorias del pasado año 2016. 284 de ellos son de Grado Medio y 599 de Grado Superior. Por su parte, el número de personal docente que ha obtenido estas ayudas asciende a 165. Todos ellos han partido este pasado mes de marzo a sus destinos europeos, y se encuentran ya formándose en empresas o instituciones de países como Italia, Polonia, República Checa, Alemania, Francia, Reino Unido, Noruega, Suecia, Finlandia, Holanda, Estonia o Eslovenia, entre otros.

Las acciones de movilidad tanto de estudiantes como del personal docente del Programa Erasmus+ que apoya esta convocatoria, persiguen los siguientes objetivos:

- Apoyar a los participantes en la formación y adquisición de conocimientos, destrezas y cualificaciones para su desarrollo profesional.

- Proporcionar a los estudiantes las habilidades necesarias para la transición del ámbito de la educación al mercado laboral.
- Facilitar el desarrollo de prácticas innovadoras en el ámbito de la Formación Profesional y su transferencia, incluso entre los distintos países participantes.

## Educación

**305.000 EUROS PARA EL PROGRAMA “*SARE_HEZKUNTZA GELAN*" DE INTEGRACIÓN DE RECURSOS DIGITALES EN EL AULA**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, la Orden por la que se convoca a los centros docentes de educación no universitaria de la red concertada, así como a las asociaciones y federaciones con relaciones estatutarias o reglamentarias con los citados centros, a participar en el proyecto de innovación para la enseñanza y aprendizaje con recursos digitales, programa “Sare_Hezkuntza Gelan”, durante el curso 2017-2018.

Esta Orden, por un importe global de 305.000 euros, tiene como finalidad impulsar la elaboración de materiales y recursos digitales en el proceso de enseñanza-aprendizaje, su utilización en el aula, así como facilitar la formación tecnológica y pedagógica necesaria para llevarlo a cabo. Serán seleccionados un máximo de 50 centros docentes concertados mediante esta convocatoria para el curso 2017-2018.

Será objeto de las ayudas económicas previstas en esta convocatoria la elaboración de un proyecto, para su implantación en el centro educativo solicitante, o en los centros asociados que participan a través de las federaciones o asociaciones, que aborde una o varias de las siguientes líneas:

1) la utilización de las nuevas tecnologías y materiales y recursos digitales para el proceso de enseñanza-aprendizaje.

2) la formación tecnológica y pedagógica del profesorado para la utilización y elaboración de materiales y recursos digitales en el proceso de enseñanza-aprendizaje.

3) la creación de material digital para su utilización en el aula.

Durante este curso 2016-2017 un total de 190 centros educativos de Euskadi participan en el programa “Sare_Hezkuntza Gelan”. De entre ellos, 105 son centros públicos y 85 concertados.

## Cultura y Política Lingüística

**EL GOBIERNO VASCO APRUEBA 500.000 EUROS PARA APOYAR ACTIVIDADES MUSICALES PROFESIONALES**

- **Esta convocatoria del Departamento de Cultura y Política Lingüística cuenta con 25.000 euros más que el año pasado**

El Consejo de Gobierno ha aprobado la orden por la que se regula el régimen de concesión de subvenciones en el ejercicio 2017 para actividades musicales profesionales. En total, el Gobierno Vasco destinará una partida presupuestaria de 500.000 euros a impulsar actividades musicales y, en general, a desarrollar y difundir trabajos de este ámbito. La convocatoria cuenta con 25.000 euros más que el año pasado.

Esta convocatoria, impulsada por el Departamento de Cultura y Política Lingüística, pretende ayudar al desarrollo de proyectos en cuatro ámbitos: publicación de partituras, impulso a proyectos musicales unitarios, proyectos musicales empresariales y programación musical. La primera de las cuatro modalidades está dotada con 30.000 euros y tiene como objetivo impulsar la edición de las obras de músicos de Euskadi. A la segunda de las modalidades se destinarán 135.000 euros y está dirigida a promotoras musicales que gestionan proyectos musicales propios.

En lo que respecta a la tercera modalidad, se ayudarán a través de una partida económica de 195.000 euros proyectos musicales de carácter empresarial. Por último, se destinarán 140.000 euros a fomentar la programación de música de grupos vascos en salas privadas.

Gracias al incremento de la ayuda de este año, la segunda de las modalidades contará con 15.000 euros más y la tercera con 10.000 euros más.

**Cultura y Política Lingüística**

## EL GOBIERNO VASCO APRUEBA DESTINAR 450.000 EUROS A PROMOCIONAR LA DANZA

- **La convocatoria incluye una nueva destinada a la producción de obras de danza de pequeño formatu**

El Gobierno Vasco ha aprobado destinar una partida de 450.000 euros para fomentar actividades relacionadas con la danza. La convocatoria prevé cinco modalidades de ayudas, entre las que incluye una nueva destinada a la producción de obras de danza de pequeño formato.

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy la orden que convoca y regula la concesión de subvenciones destinadas a la ejecución de actividades concretas en el área de danza en el ejercicio 2017, en cinco modalidades:

- Creación coreográfica (28.800 euros).
- Producción de obras de danza I (60.000 euros).
- Producción de obras de danza II (200.000 euros).
- Consolidación de compañías de danza (110.000 euros).
- Formación permanente y apoyo a profesionales de la danza (51.200 euros).

Según se menciona en las propias bases de la convocatoria, “la presente convocatoria tiene por finalidad el apoyo a la Danza, mediante la distribución de ayudas a proyectos con perspectivas contrastadas de calidad, ya sea en el terreno de la creación y producción como en el de la formación, sensibilización y apoyo al sector profesional”.  Las ayudas se podrán solicitar durante el plazo de un mes desde la publicación de la convocatoria.